


AuzoEkin Tolosa (2025)

1 Eremua: Landa Eremua



4. Tailerra: Proposamenak antolatu eta iragazi

Lekua:

Tolosako udaletxea

Data:

2025eko Urriak 28, asteartea. 18:00-20:00

Parte-hartzaileak:

- **Talde Eragilearen Ordezkaritza:** 6 pertsona
 - Emakume 1
 - 5 gizon
- **Dinamizazio taldea:** Garoa Gartziandia (Aise kooperatiba)

Sarrera:

Saioaren helburua parte-hartze prozesuan zehar jasotako proposamenak berrikustea, ordenatzea eta iragaztea izan zen, eremuko estrategiarekin eta AuzoEkin proiektuaren balioekin bat datozela bermatuz.

Lan honetarako, hainbat bidetatik jasotako proposamenak hartu dira kontuan:

- 3. saio irekian jasotako proposamenak.
- Erabaki.tolosa onlineko plataformaren bidez jasotako proposamenak.

Lantalde txikian, parte-hartzaileek - talde eragileak hautatutako ordezkari bat - ekarpen guztiak aztertu zituzten, bikoiztasunak identifikatu, bideraezinak edo eskumenetik kanpokoak baztertu, eta anbiguotasunak birformulatu eta zehaztu zituzten, errazago ulertzeko eta prozesuak aurrera jarraitu ahala proposamen hauek bide luzeagoa izan dezaten.

Ezarritako lege-, teknika-, ekonomia- eta gobernantza-baldintzak bete zituzten proposamenek bakarrik egin zuten aurrera hurrengo fasera, eta labur-labur jasotzen dira aurrerago.

Helburua:

Prozesuan zehar jasotako proposamenen berrikusketa kolektiboa, proposamenen azterketa eta iragazketa, AuzoEkin prozesuaren esparruan oinarrituta, ondoren 6. tailerrean lehenesteko.

Proposamenak

AE1. LURRALDEA, PAISAIA ETA BIODIBERTSITATEA

Zk.	Proposamena
AO1.1	Mendiko bideak garbitu eta mantentzea. Lehentasunak: PR, GR direnak. Herri bideak eta Auzoen konexioak lotzen dituztenak (Urkizuko bideak, Aldaban ere,...). Irizpidea: Jende gehien ibiltzen diren bideak eta okerren dagona.
AO1.2	Ugane eta Aldaba arteko bide sarea berreskuratzea izandako luizi handiaren ostean
AO1.3	Zuhaitzen eta belardien mantenua egitea.

AE2. HIRI EREDUA

Zk.	Proposamena
AO2.1	Olarrain: tren zubiaren baranda konpondu eta margotu
AO2.2	Urkizuko sozietatearen ur-hornidura konpontzea
AO2.3	Gas naturala. Kuestionatzen da nondik ea ote den proposamen hau, auzo batzuek ez dute ikusten horrutzaino eramatea, agian San Estebanek eskatzen du, agian Montesku. Hemen daudenek ez dute eskatu.
AO2.4	Auzoetako hiriguneak urbanizatzea: aparkalekuak, argiak eta seinaleak.
AO2.5	Urte osoan zehar eremu publikoak mantentzea Urteko Planifikazio batekin: - Zaborrak maiztasun gehiagorekin biltzea. - Lagun Artea elkartearen inguruan dauden eserlekuen mantenua - Zuhaitzen eta belardien mantenua - Auzoetako plaza eta parkeak mantendu eta berritzea.
AO2.6	Sorospen-sistemak, anbulantziak eta suhiltzaileak hobetzea. - Baserrin izenak seinalizatu, sorospen sistemak etor daitezen, zenbaki reflektanteak erabiliz - Suteen kontrako planak auzoetan. (Urkizuko adibidea) dauden baliabideak errebisatu eta ez dauden tokitan jarri.
AO2.7	Desfribiladoreak instalatzea Auzo guztietan.
AO2.8	Ez duten auzo eta baserrietan hobi septikoa instalatzea eta ur beltzak bideratzea. Auzotxikin, Bedaio, denetan izango da seguruenik.
AO2.9	Auzoetako argitasunak errebisatu eta falta diren puntuetan hauek jarri: - Oinezkoentzat beharrezkoak diren tokietan argia jarri - Baserri bakarretan seguriddegatik, lapurretak ekiditeko. - Argi gehiago Auzotxikin
AO2.10	Olarrain auzoan parkea jartzea eta gero mantentzea.
AO2.11	Ur gabezia daukanari, bermatu ura edukitzea. Herriko ur sare publikotik konektatzea auzoan horrela behar eta nahi dutenak.
AO2.13	Aldabatzikin behingoz saneamendu sarea behar bezala amaitzea, karretera baztarreko urak bideratuz.
AO2.14	Auzoan ditugun elementu artistiko eta arkitektonikoak nabarmentzea: Olarrain SA paper-fabrikako akueduktua eta Oteizaren eskultura.
AO2.15	Panel akustikoak instalatzea N1 eta trenaz babesteko. Olarrain , Aldabatziki eta Artzabaltzan (Ikus mapa)
AE2.16	Haur parkea Lagun Artea elkartearen ondoan. Landa gunetik, haurrentzako parkerik ez duen bakarra da.

AE3. ALDAKETA KLIMATIKOA

Zk.	Proposamena
AO3.1	Udalak gune publiko edo komunetan energia-komunitateak sor daitezen bultzatzea, energia berriztagarri eraginkorrek kolektiboki erabiltzeko.

AE4. BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA

Zk.	Proposamena
AO4.1	Udalak Urkizu-ko tabernaren kudeaketarako formula bat bilatzeko elkarrizketekin jarraitzea eta periodikoki horren informazioa ekartzea.
AO4.2	Auzoetako ekoizpen sistemari buruzko hausnarketa lana egitea,
AO4.3	Auzoetan ekonomia sortzen duten ekimen pribatuein laguntzea eta bizibideak erraztea jendea auzoetan geratu ahal izateko.

AE5. MUGIKORTASUNA

Zk.	Proposamena
AO5.1	Udalaren pistak eta errepideak garbitzea eta mantentzea. Sasiak kentzea. (Udalaren errepideak)
AO5.1bis1	Diputazioaren eskumena diren errepide nagusiak garbitzeko, udalak zubilana egin dezala.
AO5.1bis2	Olarrain eta Otsarain arteko oinezkoen igarotzea eta segurtasuna ziurtatzea, arriskutsu dago.
AO5.1bis3	Olarraindik Bidegorriarekin konexioa egitea. Aritzabaltza-bentaundi Olarrain bide gorriarekin lotu
AO5.3	Auzotxikitik erdigunerako bidea konpontzea
AO5.2	Garraio publikoa: Eremurako Mugikortasun plan bat edukitzea, Olarrain, Urkizu edo Auzotxikiko plan berdina edukitzea. Autobusa erdigunera, maiztasuna handitu, Aldaba, Auzo txiki. Hiribusa olarraineraino.
AO5.6	Taxi zerbitzua hobetzea. Ordutegiak zabaltzea eta ez dagoen tokietan jartzea (Bedaion, adibidez), eta bisitariek taxi zerbitzua erabili ahal izatea.
AE5.12	Olarraingo rotonda egitea, Azpeitiko errepidea harzeko bidegurutzean. Arriskutsua da eta Arzabaltzatik ia ez da ezer ikusten.
AE5.13	Aldabako aparkalekua konpontzea. Beste proiektu bat zegoen, Kasko sarreran hau mugitu dadila, aparkalekuak behar dira.

AE6. GIZARTE-KOHESIOA

Zk.	Proposamena
AO6.1	Nagusientzako formazio kurtsoak eta tailerrak auzoetan, elkarteak erabiliz
AO6.2	Laguntza ekonomikoa auzolanak egiteko. Auzolana eta hori aurrera eramateko baliabideak sustatzea.
AO6.3	Tolosako landa eremuko sarea sortzea. Landa auzoko, lan talde bat honi jarraipena egiteko. Auzo bakoitzeko partaidetzarekin.
AO6.4	Hainbat jatorritako pertsonen arteko topaketak sustatzea. (Ekimen kulturak, tailerrak, topaguneak sortzea)
AO6.5	Ikastaroak eta kultur jarduerak
AO6.6	Urkizuko frontoia berritu.
AE6.7	Lagun Artea Elkartean dagoen frontoia konpondu.
AE6.8	Lagun Artea elkartearen azpian dagoen espazioan erabilera anitzeko lokala sortu, beharrezko ekipamenduaz hornituta: Mahaiak eta aulkiak erostea. Internetarako konexioa, ordenagailua, pantaila eta proiektorea.
AE6.9	Lagun Artea Elkarteen eraikina eraberritzea: Leihoak aldatu, zoruak konpondu.

AE7. EKOIZPEN- ETA EKONOMIA-EREDUAK

Zk.	Proposamena

AE8. ETXEBIZITZA

Zk.	Proposamena
AO8.1	Ingurunea errespetatzen duen Landa-etxebizitzarako plan integrala, hirigintza-planarekin koordinatuta.
AO8.1bis	Hirigintza-araudia landa-auzoetako errealitatera eta beharretara egokitzea.
AO8.2	Udalak lurak erostea etxebizitza prezio duinekin eraikitzeko. Etxebizitza publikoa eta prezio duinekin, etxebizitzan irisgarritasuna bermatzeko.
EA8.3	Etxebizitza, elkarte eta eraikinetarako laguntzak
AO8.4	Udalaren eskumena diren edifizio edo eraikinen mantentzea.,

AE9. TRANTSIZIO DIGITALA

Zk.	Proposamena
AO9.1	Auzoetan baliabide teknologikoak ziurtatzea (ikasgela digitala, arbel digitalak)
AO9.2	Wifi publikoa ziurtatzea
AO9.3	Herriko zerbitzuak teknologia bidez landa-auzoetara hurbiltzea
AO9.4	Falta den auzo eta etxeetan Fibra optikoa jartzea.
AO9.5	Auzotarren jardueretarako egokitutako espazioak baliabide digital nahikoz hornitzea: Ordenagailua, proiektorea, interneteko konexioa. Eta dauden tresnak eguneratu eta berritu.

AE10. TRESNAK, GOBERNANTZA ETA KALITATE DEMOKRATIKOA

Zk.	Proposamena
AE10.1	Burokrazia arintzea eta dirulaguntzen justifikaziorako irizpideak malgutzea. Adibidez dirulaguntzen justifikazioetarako, gazte eta gertukoeak ezin ditugu kontratatu festetan, azkartasuna ere eskatzen digute. Epeak ere muga. Zorroztasun asko dago.
AE10.2	Uzalarekin harreman zuzena zehaztuko duen planifikazioa egitea: Auzoetako bisitak eta bilerak, herrian egindako bilerekin tartekatuta.
AE10.3	Proposamenean zer ibilbide egiten duten eta zer puntutan edo egoeratan dauden jakitea. Adb: Erabaki udaleko plataforman trazabilitatea eta bilera informatibo presenzialak.

